



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

18/02/24

## PRENTSARAKO OHARRA

### **Ribabellosa, Gernikako Arbolaren kimu bat daukien herrien zerrendan sartu da**

Arabako Erriberabeitia udalerriko uriburuak Gernikako Arbola sinbolikoaren kimu bat dauka gaur goizetik. Kimuaren landaketa ekitaldian honeek egon dira: Iñigo Urkullu Lehendakaria; Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidente; Miren Josebe Santa María Martínez Arabako udalerriko alkatea; Ramiro González Arabako Ahalduen Nagusia; Pedro Elosegí Arabako Batzar Nagusietako Presidente; Arabako diputatu nagusiordea, Pilar García de Salazar; eta udalerriko ordezkari hautatuak. Gainerako agintariak ekitaldia egin dan lekuan egin deutesie harrerea Lehendakariari eta bere emazteari, Lucia Arieta-Araunabeña.

Ekitaldiak atzerapena jasan du atzo gaueko kimuaren lapurketa dela eta. Bai Udaletxetik eta Bizkaiko Buru Batzarretik gertaera hau deitoratu eta salatu egin dute, hala ere ekitaldia berriz hasi ahal izan da Erandiako Mintegi Foralatik kimu berri bat ekarri ostean.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Presidenteak, 2017an Gernikako Batzarretxea, “ideologia guztietako pertsonen errespetetan eta maite daben sinboloa eta lekua”, bisitatu eban jende kopuru handia, eta bisitari horreen artean Erriberabeitiako talde bat egon zala, azpimarratu gura izan dau bere esku-hartzean. Gainera, Arabako udalerriko aurreko alkateak, Gernikako Arbolaren, “gure eskubideen eta askatasunaren sinboloaren”, kimu bat landatzeko egin eban eskaria gogoratuarazo dau “izan be, hegoaldean zagozen arren, Burgoseko mugetatik gertu, Euskadi zarie eta sentiduten zarie, eta, gainera, gero eta euskal hiztun gehiago dago bertan”.

Erriberabeitiko alkateak, bere aldetik, bat egin gura izan dau Presidentearen berbakaz, Gernikako Arbolak Euskal Herriko udalerririk guztientzat daukan esanahiari jagokonez: “euskaldun guztiak batzeko eta alkartzeko sinboloa da”. Aukereaz baliauta, eskerrak emon deutesaz Alkatetzan bere aurretik egon zanari, berari esker egin dalako gaurko ekitaldia.

Bertan egon diran agintariak eta udalerraren ordezkariak izan dira lehenengo palakadak emon dituenak, ekitaldiaren ohoretan dantzatu dan aurrekuaren ostean. Ekitaldiari bukaerea emoteko, Erriberabeitia Abesbatza “Gernikako Arbola” eta “Agur Jauna” abestu dau.

Udalerriko Foruen Plazan landatu dan alea, Gernikako Batzarretxeko barandaren erreplika batek zaintzen dau. Bizkaiko foru ordezkariak adierazo dauenez, “gaurtik aurrera oraindino gaztea dan zuen kimua babestuko dau. Seguru nago ondo zainduko dozuela eta Ribabellosako eta Erriberabeiti osoko biztanle belaunaldi askoren maitasunaz haziko dala”.

24/02/18

## NOTA DE PRENSA

### **Rivabellosa se une a la lista de localidades que cuentan con un retoño del Árbol de Gernika**

La capital del municipio alavés Ribera Baja cuenta desde esta mañana con un retoño del simbólico Árbol de Gernika. El acto de plantación ha contado con la presencia del Lehendakari, Iñigo Urkullu; la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui; la alcaldesa del municipio alavés, Miren Josebe Santa María Martínez; el Diputado General de Álava, Ramiro González; el Presidente de Juntas Generales de Álava, Pedro Elosegi; la Teniente Diputado General de Álava, Pilar García de Salazar; y representantes elegidos del municipio. El Lehendakari y su esposa, Lucia Arieta-Araunabeña, han sido recibido por el resto de autoridades en el lugar de acto.

Este acontecimiento ha sufrido un retraso debido a que el retoño ha sido sustraído de madrugada en la localidad alavesa por autores y causas aún desconocidas. Desde el Ayuntamiento y las Juntas Generales se ha lamentado y denunciado este hecho; no obstante se ha podido reanudar tras traer un nuevo retoño del Vivero Foral de Erandio.

La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia ha querido resaltar en su intervención el gran número de personas que visitaron en 2017 la Casa de Juntas de Gernika, “un símbolo y un espacio respetado y querido por personas de todas las ideologías”, entre las que se encuentra un grupo perteneciente a Ribera Baja. Asimismo ha recordado la petición del anterior alcalde del municipio alavés, “que si bien ubicado al Sur en los límites con Burgos, también es y os sentís Euskadi, y cada vez cuenta con más euskaldunes” de plantar un retoño del Árbol de Gernika, “símbolo de nuestros derechos y libertades”.

Por su parte, la alcaldesa de Ribera Baja se ha querido adherir a las palabras de la Presidenta en relación al significado que tiene el Árbol de Gernika para todos los municipios de Euskal Herria: “Es símbolo de reunión y de unión de todos los vascos”. También ha querido aprovechar la oportunidad para agradecerle a su antecesor en la Alcaldía el acto que hoy se ha celebrado.

Las autoridades allí presentes, junto con los representantes del municipio, han sido los encargados de dar las primeras paladas, a lo cual le ha precedido un aurreku en honor al acontecimiento. El acto ha culminado con la interpretación del “Gernikako Arbola” y “Agur jauna” por parte del coro “Erriberabeitia Abesbatza”

El ejemplar plantado en las dependencias de la Plaza de los Fueros de la localidad se encuentra custodiada por una réplica de la barandilla de la Casa de Juntas de Gernika que, según ha augurado la representante foral de Bizkaia, “protegerá desde hoy vuestro todavía joven retoño que estoy segura vais a saber cuidar y hacer crecer con el cariño de distintas generaciones de habitantes de Rivabellosa y de toda Ribera Baja”.